

Jagobaren aurkezpena.mp3

Hepa! Jagoba naiz, hogeita bi urte ditut, zarauztarra naiz eta kazetaritza ikasten ari naiz.

Denek esaten didate nahiko mutil irekia naizela, eta nik uste dut egia dela; erraz egiten ditut lagunak.

Ez naiz batere ordenatua; nire logela kaosa da, eta gauza guztiak kanpoan izaten ditut, baina nire espazioa da, ezta? Bada, hori!!

Kuadrillarekin ateratzen naiz, Imanol eta Julen dira nire lagun minak.

Ez dakit zer gertatzen den, baina ligatzea... Uf! Ez dakit, baina... "lagun bezala maite zaitut", esaten didate, eta hori esaten dizutenean, akabo! Ez nago hain gaizki, ezta?

Zinema da nire zaletasuna eta, nola ez, bidaiatzea; ahal dudan guztietan egiten dut eskapadaren bat.

Umetan futboleko jokatzeko nuen hondartza eta orain ere tarteka jokatzeko dut, baina gutxiago. Bueno, eta, udan, surfa egitea gustatzen zait, baina udan, e!

Ezagutu dudako lekurik bereziena India da. Nire bi lagun onenekin joan nintzen, eta erabat liluratuta gelditu ginen. Berriz joateko aurretik ari gara.

Bazkaltzeko orduan aldamenekoak bere labana nire platerari begira jartzen badu, oso urduri jartzen naiz, eta beste aldera begira jartzeko eskatzen diot.

Etxean oinutsik ibiltzea izugarri gustatzen zait; oheratzeko, berriz, galtzerdiak janzen ditut, ezin naiz oinutsik lokartu, aizue!